

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO  
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

*Diru laguntza hauen 2017ko deialdia onartzea: Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako laguntzak, oroimen historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeko.*

Diputatu Nagusiak, 2017ko apirilaren 10eko datarekin, ondorengo foru dekretua egin du:

2016. urtean oroimen historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak eta dagozkion deialdia onartu ziren, Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutakoak hain zuzen ere (2016ko maiatzaren 6ko 85 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

Aipatu laguntzek helburu dute oroimen historikoa berreskuratzearen alorrean Gipuzkoan edo Gipuzkoako jendeak jasandako gertaeren oroimena berreskuratzea, egia ezagutu eta aitortzea.

Aipatu diru laguntzen programa jarraitzea beharrezkotzat jotzen denez, foru dekretu honen bidez 2017. urteari dagokion deialdia onartzen da, 132.200,00 euroan gehienez eta 1.0140.400.461.01.02 2017 eta 1.0140.400.481.00.02 2017 kontu sailen kargura.

Ondorioz, diputatu nagusi honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako udalei zuzendutako diru laguntzen 2017ko deialdia, oroimen historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeko; deialdia erabaki honen eranskinean jasotzen da.

*Bigarren.* Baimentzea ehun eta hogeita hamabi mila berrehun euroko (132.200,00 €) gastua, ondorengo kontu sailen kargura:

1 0140.400.461.01.03 2017: 50.000 €.

1 0140.400.481.00.02 2017: 82.200 €.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dion administrazio bideari. Interesatuak foru dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegjetan, argitaratzearen biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsioa aurkezteko diputatu nagusi honi, argitaratzearen biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2017ko apirilaren 11.—Ander Arzelus Aramendi, Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua.

(2602)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

*Convocatoria 2017 de subvenciones destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa y a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica.*

El Diputado General, con fecha de 10 de abril de 2017, ha dictado el siguiente decreto foral:

En el año 2016 se aprobaron las bases reguladoras y la correspondiente convocatoria de ayudas destinadas a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 85 de 6 de mayo de 2016).

Dicha ayudas tienen por objeto recuperar la memoria histórica, es decir, recuperar, conocer la verdad y reconocer los hechos acaecidos en Gipuzkoa o a personas de este Territorio Histórico.

Considerando necesario continuar con el citado programa de ayudas en este ejercicio 2017, mediante el presente decreto foral se aprueba la convocatoria correspondiente al año 2017 por un importe máximo de 132.200,00 euros con cargo a las partidas 1.0140.400.461.01.03 2017 y 1.0140.400.481.00.02 2017.

En consecuencia, este Diputado General

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la convocatoria 2017 de las subvenciones destinadas a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica, que se acompaña al presente decreto foral como anexo.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de ciento treinta y dos mil doscientos euros (132.200,00 €) con cargo a las siguientes partidas:

1 0140.400.461.01.03 2017: 50.000 €.

1 0140.400.481.00.02 2017: 82.200 €.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de abril de 2017.—El jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, Ander Arzelus Aramendi.

(2602)

ERANSKINA

ANEXO

OROIMEN HISTORIKOA BERRESKURATZEA XEDE DUTEN  
PROIEKTUAK GAUZATZEKO GIPUZKOAKO UDALEI ETA IRABAZI  
ASMORIK GABEKO ERAKUNDE PRIBATUEI ZUZENDUTAKO DIRU  
LAGUNTZEN 2017KO DEIALDIA

1. Oinarri arautzaileak.

Deialdia hau 2016ko maiatzaren 3ko Diputatuen Kontseiluko Erabakiaren bidez onartutako oinarri arautzaileek arautzen dute (2016ko maiatzaren 6ko 85 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

2. Finantzazioa.

1. Deialdi honetan diru laguntzetarako guztira 132.200,00 euro emango dira ondorengo kontu sailen kargura:

1 0140.400.461.01.03 2017: 50.000 €.

1 0140.400.481.00.02 2017: 82.200 €.

2. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitura duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

3. Erakunde eskatzaileak.

Deialdi honetako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek –banaka edo udal batzuek elkartuta– eta Legez eraturako irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek, laguntza programaren 3. oinarri arautzaile orokorrean ezarritakoaren arabera.

4. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaintzak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik bertatik hasiko da eta amaituko da 2017ko maiatzaren 15ean.

5. Jarduketak gauzatzeko eta egiaztatze epea.

1. Eskaerako jarduketak 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira, eta gauzatu direla zuzitzen duen kontua aurkeztu beharko da deialdiaren 2017ko urriaren 15a baino lehen eta proiektuaren kostu osoarengatik.

2. Hala ere, Diruz lagundutako jarduerak ez badira amaitu data horretarako, onuradunek kontu zurigarri partziala urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute burututako jarduerekin, eta hitza eman beharko dute jarduera guztiak zurituko dituztela deialdi urtearen ondorengo urteko martxoaren 31a baino lehen, eta diru laguntza ordainduko zaie.

6. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

1. Diru laguntzen eskaerak deialdi honi dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko diru laguntzen atarian ezarritako ereduari jarraikiz beteko dira.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen kasuan, eskaera ereduari ondorengo dokumentazioa erantsi behar zaio:

a) 3.2. oinarriari aipatzen den berariazko eta ardurapeko adierazpena, onuradun izateko debekurik ez duela dioena, alegia.

b) Laguntza eskatzeko udal organo eskudunak hartu duen erabakiaren edo ebazpenaren ziurtagiria, adierazita zenbateko laguntza eskatzen den eta kopuru hori zenbateko ehunekoa den jardueraren kostu osoaren gainean.

Hainbat udal elkarrekin bat eginda aurkezten badira, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

CONVOCATORIA 2017 DE LAS SUBVENCIONES DESTINADAS A  
AYUNTAMIENTOS Y A ENTIDADES PRIVADAS SIN ÁNIMO DE  
LUCRO PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS DE  
RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA

1. Bases reguladoras.

La presente convocatoria se rige por las bases reguladoras aprobadas mediante Acuerdo de Consejo del Gobierno Foral de 3 de mayo de 2016 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 85 de 6 de mayo).

2. Financiación.

1. La cuantía máxima para la presente convocatoria será de 132.200,00 € con cargo a las siguientes partidas:

1 0140.400.461.01.03 2017: 50.000 €.

1 0140.400.481.00.02 2017: 82.200 €.

2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

3. Entidades solicitantes.

Podrán acogerse a las subvenciones de la presente convocatoria los Ayuntamientos –individualmente o concurriendo varios de ellos conjuntamente– del Territorio Histórico de Gipuzkoa y las entidades privadas sin ánimo de lucro legalmente constituidas, conforme a lo establecido en la base reguladora general 3.ª del programa de ayudas.

4. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el mismo día de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el día 15 de mayo de 2017.

5. Plazo de ejecución y justificación de la actuación.

1. Las actuaciones objeto de solicitud deberán ejecutarse entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2017, debiendo presentarse la cuenta justificativa de la ejecución de las mismas con anterioridad al 15 de octubre de 2017 y por el coste total del proyecto.

2. No obstante, en el caso de que las actuaciones objeto de subvención no hayan finalizado en esa fecha, las personas beneficiarias presentarán antes del 15 de octubre una cuenta justificativa parcial con las actividades llevadas a cabo así como un compromiso de presentación de la totalidad de justificación con anterioridad al 31 de marzo del año siguiente al de la convocatoria y se procederá al pago de la ayuda.

6. Documentación a presentar con la solicitud.

1. Las solicitudes de subvención se presentarán conforme al modelo establecido en el portal de subvenciones de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa correspondiente a la presente convocatoria.

2. En el caso de los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, al modelo de solicitud se acompañará la siguiente documentación:

a) Declaración expresa y responsable de no estar incurso en las causas de prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria a las que se hace referencia en la base general 3.2.

b) Certificación del acuerdo o resolución del órgano municipal competente, por el que se resuelve solicitar la ayuda correspondiente, con indicación de la cuantía solicitada y del porcentaje que representa respecto del coste total de la actuación.

En el caso de ayuntamientos que concurren conjuntamente en agrupación, deberán presentar:

i) Udal bakoitzeko organo eskudunak hartutako erabakia-  
ren ziurtagiria.

ii) Udal bakoitzak hartzen dituen exekuzio konpromisoak.

iii) Aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa, guz-  
tiak ere onuradunak izango baitira.

c) Urtean zehar egin beharreko lan prozesua jasotzen  
duen proiektua, gutxienez honako datu hauek jasoko dituena:  
a) helburuen justifikazio laburra; b) erabiliko den metodologia;  
c) proiektuaren bideragarritasuna; d) jarduketa mota desberdi-  
nak; e) proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren  
esperientzia eta formakuntza; f) lan prozesuaren kronograma;  
g) herritarrekiko harremanak: hartzaileak, herritarren partaide-  
tzarako mekanismoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarren-  
gan eragina izateko aukera; h) nazioarteko jarraibideekin duen  
koherentzia; i) genero ikuspegia; j) hizkuntza ofizialen erabilera  
planteamendua; k) alderdi berritzaileak, eta l) ebaluazio adie-  
razleak.

Hainbat udal elkarrekin bat eginda aurkezten badira, kide  
diren udalek ezingo dute beren kontura laguntzarik eskatu tal-  
dean eskatutakoaren antzeko proiektu baterako, ezta proiektua  
zatikatuta aurkeztu ere.

d) Proiektua gauzatzeko gastuen aurrekontua, kontu saile-  
tan banakatuta, eta proiektuaren gainerako finantzazio bideak,  
halakorik balego. Kanpoan kontratatu behar izanez gero, pro-  
fesional edo entitate kontratatzailearen aurrekontu xehatua ere  
beharko da.

e) Diru laguntza eskatu den jarduera horretarako eskatu  
diren beste diru laguntza batzuen zerrenda; bertan adierazi  
beharko da zenbateko laguntza eskatu/eman den, zeintzuk  
diren laguntza eskatu zaien administrazio edo erakunde publiko  
edo pribatuak, eta zein den horien egoera (ukatuta, ebazpena-  
ren zain, emanda, eta kopuruak). Ez bada beste diru laguntzarik  
eskatu, hori egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena.

f) Udaleko idazkariaren ziurtagiria, zera egiaztatzeko: era-  
kunde eskatzaileak gastuaren zenbateko osotik % 20ko  
kofinantzazioa duela, gutxienez, proiektua aurrera eramateko.

Hainbat udal elkarrekin bat eginda aurkezten badira, udal  
bakoitzeko ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

g) Proiektuari buruzko aholkuak jasotzeko edo proiektua  
garatzeko kanpoko laguntza teknikoak kontratatu behar izanez  
gero, lan hori egingo duen pertsona fisiko edo juridikoaren espe-  
rientzia eta formakuntza zehaztu beharko da. Formakuntza egokia  
izan behar da aurkeztutako proiektuari, eta esperientzia gutxienez  
hiru urtekoa behar izango da, antzeko proiektuak lantzen.

h) Beste edozein dokumentazio, esleipen irizpideak kredi-  
tatzeko aukera ematen duena.

3. Legez eraturako irabazi asmorik gabeko erakunde pri-  
batuen kasuan, ereduari ondorengo dokumentazioa erantsi  
behar zaio:

a) Erakundearen estatutuen eta eraketa aktaren kopia,  
dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen  
agiria, eta zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeha-  
rrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak (datu horiek diru  
laguntzen organo kudeatzaileari zuzenean lagatzeko baimena  
eman ezean).

Erakunde horiek oroimen historikoarekin eta gerra zibileko  
eta diktadurako biktimen aitortpenarekin bat datozen helburu  
edo jarduerak izan beharko dituzte.

b) Bazkide Liburuaren kopia, bazkide kopurua kredita-  
tzeko; hori aurkeztu ezean, elkarteko idazkariaren ziurtagiri ofi-

i) Certificado del acuerdo adoptado por el órgano compe-  
tente de cada uno ellos.

ii) Los compromisos de ejecución que asume cada ayunta-  
miento.

iii) El importe de la subvención a aplicar por cada uno de  
ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios.

c) Proyecto en el que figure el proceso de trabajo a realizar  
durante el año, que deberá contener, como mínimo, a) breve  
justificación de los objetivos, b) metodología a emplear, c) viabi-  
lidad del proyecto, d) los diferentes tipos de actuaciones, e)  
experiencia y formación de la persona física o jurídica que rea-  
liza el proyecto, f) cronograma del proceso de trabajo, g) rela-  
ción con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de  
participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad  
de incidencia en la ciudadanía, h) coherencia con las directrices  
internacionales, i) la perspectiva de género, j) planteamiento del  
uso de las lenguas oficiales, k) aspectos innovadores, y l) indi-  
cadores de evaluación.

En el caso de los ayuntamientos que concurren en agrupa-  
ción, éstos no podrán solicitar por su cuenta ayuda para un pro-  
yecto similar al solicitado conjuntamente ni presentar el pro-  
yecto fraccionadamente.

d) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la  
ejecución de tal proyecto conlleve, haciendo constar los demás  
medios de financiación del mismo. En el caso de contratación  
externa, también será necesario un presupuesto desglosado del  
/ de la profesional o entidad contratante.

e) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con  
destino a la actividad para la que se solicitare la subvención, en  
la cual habrá de hacerse referencia a la cuantía, a las adminis-  
traciones o entidades públicas o privadas a las que se hubiere  
solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pen-  
dientes de resolución, concedidas e importes). En caso contra-  
rio, declaración responsable de no haber solicitado ninguna  
otra ayuda.

f) Certificado del Secretario o Secretaria municipal, justifi-  
cativo de la cofinanciación en un 20 %, como mínimo, del  
importe total del presupuesto del gasto para la realización del  
proyecto.

En el caso de los ayuntamientos que concurren conjunta-  
mente en agrupación, deberá aportarse un certificado por cada  
ayuntamiento.

g) En el caso de contratación externa de una asistencia  
técnica para el asesoramiento o desarrollo del proyecto, habrá  
de especificarse la experiencia y formación de la persona física  
o jurídica que realizará la asistencia. La formación deberá ser  
adecuada al tipo de proyecto, y la experiencia mínima será de 3  
años en proyectos similares.

h) Cualquier otra documentación que posibilite la acredita-  
ción de los criterios de concesión.

3. En el caso de entidades privadas sin ánimo de lucro  
legalmente constituidas, al modelo de solicitud se acompañará  
la siguiente documentación:

a) Copia de los estatutos y del acto fundacional de la enti-  
dad, certificación de estar dada de alta en el registro correspon-  
diente y certificados de hallarse al corriente de las obligaciones  
tributarias y con la Seguridad Social (salvo que se autorice  
expresamente la cesión de dichos datos directamente al órgano  
gestor de las subvenciones).

Dichas entidades deberán tener entre sus objetivos o activi-  
dades las que sean acordes con la memoria histórica y el reco-  
nocimiento de las víctimas de la Guerra Civil y de la Dictadura.

b) Fotocopia del Libro de Socios/as, para acreditar su  
número, o en su defecto certificado oficial de la persona titular

ziala, non agertzen den gaur egun eta azken bi urteetan abenduaren 31n zegoen bazkide kopurua.

c) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari den pertsona fisikoaren NAREN fotokopia.

d) Urtean zehar egin beharreko lan prozesua jasotzen duen proiektua, gutxienez honako datu hauek jasoko dituen: a) helburuen justifikazio laburra; b) erabiliko den metodologia; c) proiektuaren bideragarritasuna; d) jarduketa mota desberdinak; e) proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza; f) lan prozesuaren kronograma; g) herritarrekiko harremanak: hartzaileak, herritarren partaidetzarako mekanismoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko aukera; h) nazioarteko jarraibideekin duen koherentzia; i) genero ikuspegia; j) hizkuntza ofizialen erabilera planteamendua; k) alderdi berritzaileak, eta l) ebaluazio adierazleak.

e) Proiektua gauzatzeko gastuen aurrekontua, kontu sailetan banakatuta, eta proiektuaren gainerako finantzazio bideak, halakorik balego. Kanpoan kontratatu behar izanez gero, profesional edo entitate kontratatzailearen aurrekontu xehatua ere beharko da.

f) Diru laguntza eskatu den jarduera horretarako eskatu diren beste diru laguntza batzuen zerrenda; bertan adierazi beharko da zenbateko laguntza eskatu/eman den, zeintzuk diren laguntza eskatu zaien administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak, eta zein den horien egoera (ukatuta, ebazpenaren zain, emanda, eta kopuruak). Ez bada beste diru laguntzarik eskatu, hori egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena.

g) Proiektuari buruzko aholkuak jasotzeko edo proiektua garatzeko kanpoko laguntza tekniko kontratatu behar izanez gero, lan hori egingo duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza zehaztu beharko da.

h) Beste edozein dokumentazio, esleipen irizpideak kreditatzeko aukera ematen duena.

#### 7. Ebazpena eta jakinarazpena.

1. Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, urteko deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; data horretan hasten baita prozedura ondorio guztietarako. Adierazitako gehienezko epea amaitzerako ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, interesatuek administrazioaren isiltasuna dela-eta beraien eskaerak ezetsiak izan direla uler dezakete.

2. Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1, b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

de la Secretaría de la Asociación certificando el número de socios/as actuales y a 31 de diciembre de los dos años inmediatamente anteriores.

c) Fotocopia del DNI de la persona física representante legal de la entidad solicitante.

d) Proyecto en el que figure el proceso de trabajo a realizar durante el año, que deberá contener, como mínimo, a) breve justificación de los objetivos, b) metodología a emplear, c) viabilidad del proyecto, d) los diferentes tipos de actuaciones, e) experiencia y formación de la persona física o jurídica que realiza el proyecto, f) cronograma del proceso de trabajo, g) relación con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad de incidencia en la ciudadanía, h) coherencia con las directrices internacionales, i) la perspectiva de género, j) planteamiento del uso de las lenguas oficiales, k) aspectos innovadores, y l) indicadores de evaluación.

e) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la ejecución de tal proyecto conlleve, haciendo constar los demás medios de financiación del mismo. En el caso de contratación externa, también será necesario un presupuesto desglosado del / de la profesional o entidad contratante.

f) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino a la actividad para la que se solicitare la subvención, en la cual habrá de hacerse referencia a la cuantía, a las administraciones o entidades públicas o privadas a las que se hubiere solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En caso contrario, declaración responsable de no haber solicitado ninguna otra ayuda.

g) En el caso de contratación externa de una asistencia técnica para el asesoramiento o desarrollo del proyecto, habrá de especificarse la experiencia y formación de la persona física o jurídica que realizará la asistencia.

h) Cualquier otra documentación que posibilite la acreditación de los criterios de concesión.

#### 7. Resolución y notificación.

1. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de las ayudas es de seis meses, computados a partir del día siguiente al de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de la correspondiente convocatoria anual, que implica la iniciación del procedimiento a todos los efectos. Transcurrido dicho plazo máximo sin haberse notificado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1, b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.



<b>ESKABIDE EREDUA / MODELO DE SOLICITUD</b>
<b>OROIMEN HISTORIKOA BERESKURATZEKO PROIEKTUA / PROYECTO DE RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA</b>
Eskatzailea / <i>Solicitante</i> : IFK / <i>CIF</i> :                      PK / <i>CP</i> : Helbidea / <i>Domicilio</i> : Harremanetarako pertsona / <i>Persona de contacto</i> : Telefonoa / <i>Teléfono</i> : Helbide elektronikoa / <i>Correo electrónico</i> : Kontu korrontea / <i>Cuenta corriente</i> (IBAN) ES
PROIEKTUAREN IZENA / DENOMINACIÓN DEL PROYECTO:
1.- Proiektuaren helburuen justifikazio laburra / <i>Breve justificación de los objetivos del proyecto</i>
2.- Erabiliko den metodologia / <i>Metodología a emplear</i>
3.- Proiektuaren bideragarritasuna / <i>Viabilidad del proyecto</i>
4.- Jarduketa mota desberdinak / <i>Diferentes tipos de actuaciones</i>
5.- Proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza / <i>Experiencia y formación de la persona física o jurídica que realiza el proyecto</i>
6.- Lan prozesuaren kronograma / <i>Cronograma del proceso de trabajo</i>
7.- Herritarrekiko harremanak: hartzailak, heritarren partaidetzarako mekanismoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko aukera / <i>Relación con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad de incidencia en la ciudadanía.</i>
8.- Nazioarteko jarraibideekin duen koherentzia / <i>Coherencia con las directrices internacionales.</i>
9.- Genero ikuspegia / <i>Perspectiva de género</i>
10.- Hizkuntza ofizialen erabileraren plangintza / <i>Planteamiento del uso de las lenguas oficiales</i>





11.- Alderdi berritzaileak / <i>Aspectos innovadores</i>
12.- Ebaluazio adierazleak / <i>Indicadores de evaluación</i>
13.- Proiekturako eskatu diren beste diru laguntza batzuen zerrenda / <i>Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino al proyecto.</i>
EZ dira eskatu / <i>NO se han solicitado:</i> <input type="checkbox"/> BAI eskatu dira / <i>SÍ se han solicitado:</i> <input type="checkbox"/> NORI / A QUIÉN: kopurua/cantidad egoera/situación €

**UDALEK AURKEZTU BEHARREKO  
ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA.**

..... jaunak /  
andereak, .....  
Udaleko ..... gisa (kargua  
jarri)

**MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE  
A PRESENTAR POR AYUNTAMIENTOS.**

D/D<sup>a</sup>....., en  
calidad de (indicar cargo)  
..... y en representación  
del Ayuntamiento de .....

**AITORTZEN DU**

ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean

Aitortzen du, baita ere, egunean dagoela lege xedapenek ezarritako zerga gaietako eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

**DECLARA:**

que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Así mismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Asimismo, declara hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

Lekua eta data/ lugar y fecha



**IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATE PRIBATUEK AURKEZTU BEHARREKO ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA.**

Eskatzailearen izen-abizenak: .....  
NA: .....  
Helbidea: .....  
Ordezkatzen duen entitatea: ..... Entitatearen IFK: ..... Entitatearen helbidea: .....

**MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE A PRESENTAR POR ENTIDADES PRIVADAS SIN ÁNIMO DE LUCRO.**

D/D<sup>a</sup> ....., mayor de edad, con D.N.I. nº..... y domicilio en ....., en representación de ....., con N.I.F. .... y domicilio social en .....

**AITORTZEN DU**

Ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean

Aitortzen du, baita ere, egunean dagoela lege xedapenek ezarritako zerga gaietako eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

Hala, berariaz  BAIMENTZEN DU / EZ DU BAIMENTZEN  horretarako eskumena duten organoek behar adinako informazioa eman diezaioten zuzenean diru laguntza kudeatzen duen administrazio publikoari, ordezkatutako enpresak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

**DECLARA:**

Que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Así mismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Asimismo, declara hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

A tal efecto,  SÍ / NO  AUTORIZA expresamente para que los órganos competentes procedan a la cesión de la información que acredite que la empresa representada cumple con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social directamente a la Administración Pública gestora de la subvención.

Lekua eta data/ lugar y fecha